

I. XEDAPEN OROKORRAK

ESTATUKO BURUZAGITZA

18132 *18/2011 Errege Dekretu Legea, azaroaren 18koa, Espainiako Itsuen Erakundeak (ONCE) desgaituekin egindako lan-kontratuengatik Gizarte Segurantzari ordaindu beharreko kuoten hobariak arautzen eta «E.coli» bakterioaren krisiak eragindako langileentzako Gizarte Segurantzaren neurriak ezartzen dituen.*

Espainiako Itsuen Erakundea (ONCE) Zuzenbide Publiko sozialeko korporazioa da, izaera juridiko propioa eta jarduteko eta antolatze gaitasun osoa duena. Helburu soziala itsuen eta ikusmen-urritasun larriak dituztenen autonomia pertsonala eta integrazioa lortzea da, gizarte-zerbitzuak ematearen bidez. Espainiako lurralde osoan administrazio publikoek eskuordetutako funtzioak betetzen ditu, Estatuaren babespean, eta erakundearen antolamendua Espainiako Itsuen Erakundea berrantolatzen duen martxoaren 15eko 358/1991 Errege Dekretuaren bitartez arautzen da.

Korporazio horren gizarte-, ekonomia- eta enpresa-jarduerak elkartasunaren printzipio eta balioak, irabazi-asmorik eza eta interes orokorra ditu oinarri. Desgaituen prestakuntza eta haietarako enplegu-sorkuntza eragile berezi garrantzitsua da, gizarte-mugimenduak lotu eta egituratzeko gizarte-eragilea da eta desgaitasunari babes soziala emateko Espainiako eredia indartzen duen elementu bereizlea da, hala Europar Batasunean nola nazioarteko beste instantzia batzuen aurrean.

Estatuko Gobernuak eta Espainiako Itsuen Erakundeak ONCEren 2012-2021 aldirako etorkizuneko egonkortasunerako lankidetzak, elkartasun eta lehiakortasunaren inguruan sinatutako akordio orokorraren 21. idatz-zatian ezarritakoaren arabera, eta kontuan izanda ONCE dela Espainian desgaitu gehien enplegatzen dituen, beharrezkoa eta ezinbestekoa da erakunde horri bere jarduerekin jarraitzeko aukera emango dioten bitartekoak eskaintzea, Gizarte Segurantzarako enpresa-kuotetan eta baterako bilketako enpresa-ekarpenetan % 100eko hobaria ezarrita, lan-istripuak eta laneko gaixotasunak barne hartuta, enplegu-zentro bereziekin gertatzen den moduan.

2011. urteko Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 22ko 39/2010 Legearen berrogeigarren xedapen gehigarrian eta ONCEren aurreko hitzarmenean ezarritakoaren arabera, premiazkoa eta beharrezkoa da tresna eta bitartekoak sortzeko sistema alternatibo bat ezartzea, ONCEk 2012ko urtarrilaren 1ean bitarteko nahikoak izan ditzan, eta ezartzen zaizkion gizarteko eta elkartasuneko helburuak bete ditzan, egonkortasun juridiko-instituzionala bermatzeko, abangoardiako gizarte-eragile gisa, bai eta erakunde horren epe luzerako finantza-egonkortasuna bermatzeko ere, azken batean desgaituen lan-munduratzeko sustatzeko.

Bestalde, «E.coli» bakterioaren krisiak eta, Alemaniako elikadura-intoxikazioaren ondorioz, gaixotasunaren balizko kausa Espainiako landa-produktuak zirela adierazten zuten lehen txostenek kaltetu zituzten nekazaritza-enpresei erakunde-laguntzak eman zitzaizkien. Ondoren, kausa hori baztertu egin zen, baina ekoizle eta langileei eragindako galerak nekazaritza-sektorea nabarmen kaltetua zuen jada.

Europako Batzordeak onartutako laguntzen hartzailak enpresak izan ziren, baina kontingentzia horiek ez zituzten langileak estali. Ondorioz, errege lege-dekretu honetan onartzen diren neurrien helburua da nekazaritzan lanaldiak ez burutzeagatik Gizarte Segurantzari egin beharreko kotizazioaren gutxitzearen ordainak ematea langile horiei, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrarekin hitzarmen berezi bat izenpetuta. Hitzarmen hori Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren aurrekontuen kargura finantzatu da.

Horren arabera, premiazkoa denez arestian aipatutako neurriak hartzea, eta Konstituzioaren 86. artikuluan jasotako baimena baliatuta, Ekonomia Gaietarako

presidenteorde eta Ekonomia eta Ogasuneko ministroaren, Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasuneko ministroaren eta Lan eta Immigrazioko ministroaren proposamenez, eta Ministro Kontseiluak 2011ko azaroaren 18ko bileran eztabaidatu ondoren,

XEDATZEN DUT:

1. artikulua. *Gizarte Segurantzarako kuotetarako hobaria.*

1. Gizarte Segurantzaren enpresa-kuoten (lan-istripu eta laneko gaixotasunen kuotak barne, bai eta baterako bilketako kuoten enpresa-ekarpenetan ere) % 100eko hobarirako eskubidea emango dute, Espainiako Itsuen Erakundeak (ONCE) desgaituekin egindako lan-kontratuek, lan-arloko legerian aurreikusitako edozein kontratazio-modalitatetan eta kontratu horien indarraldi guztian zehar. Hobari bera izango dute desgaituen enplegua sustatzeko aldi baterako kontratuak mugagabe bihurtzen direnean edo aldi baterako edo iraupen mugatuko kontratuak mugagabe bihurtzen direnean, bai eta langile desgaituekin sinatutako prestakuntza-kontratuak direnean ere.

2. Errege lege-dekretu honen ondorioetarako, desgaituak izango dira ezinduen aukera-berdintasunari, bazterketarik ezari eta mugieraztasun unibertsalari buruzko abenduaren 2ko 51/2003 Legearen 1.2 artikulua hiruugarren lerrokadan adierazitakoak.

3. Hobari horiek eskuratzeko, Espainiako Itsuen Erakundeak (ONCE) Gizarte Segurantzaren kuotak egunean ordainduta izan beharko ditu.

4. Lege honetan aurreikusten ez denerako, hazkundera eta enplegua hobetzeko abenduaren 29ko 43/2006 Legearen I. kapituluaren 1. atalean ezarritakoa aplikatuko da.

2. artikulua. *Gizarte-segurantzako neurriak «E.coli» bakterioaren krisiak eragindako langileentzat.*

1. «E.coli» bakterioak nekazaritzako elikagaien sektorean eragindako krisiaren ondorioz lan-jarduera gutxitu zaien langileek hitzarmen berezi bat sinatu ahal izango dute Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrekin, eragindako enpresetan lan egin ez duten egunetarako.

2. Lege honen ondorioetarako, «E.coli» bakterioak nekazaritzako elikagaien sektorean eragindako krisiaren ondorioz langile baten jarduera gutxitu dela joko da honako baldintza hauek betetzen direnean:

a) «E.coli» bakterioaren krisiak ekoizpen-prozesuetan eragin dien nekazaritzako elikagaien sektoreko enpresaren batekin lan-harremana eduki izana aurreko urtean.

b) Egiaztatzea ez dela eragindako enpresa batean lanean jardun 2011ko maiatzetik uztailera.

3. Gizarte Segurantzaren Sistemako Tratatu Berezia arautzen duen urriaren 13ko TAS/2865/2003 Aginduan xedatutakoaren arabera sinatuko da Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrekin hitzarmen berezia, honako berezitasun hauekin:

a) Langileek hitzarmen berezia sinatu ahal izango dute, arau honetan ezarritako baldintzetan, arau hau indarrean sartzetik 2013ko abenduaren 31ra arte, aurrez burutzen zuten jarduera egiteari uzten badiote.

b) Langileek hitzarmen berezia atzeraeraginez sinatu ahal izango dute 2011ko maiatzetik uztailerako jarduerarik gabeko aldia estaltzeko, jardueragatik edo langabezia-prestazioagatik kotizaziorik izan ez badute.

c) Aurreko paragrafoko kasuan, eskaera arau hau indarrean sartu ondorengo 90 egunetan egin beharko da.

d) Hitzarmena sinatzeko eskaeran adieraziko du «E.coli» bakterioaren ondoriozko nekazaritzako elikagaien sektoreko krisiak eragin diola, bai eta bigarren atalean aipatutako enpresaren ziurtagiri bat aurkeztu ere, nekazaritzako elikagaien krisi hori gertatu ez balitz enpresa horretan zenbat egunetan zerbitzu eman izango zukeen adierazten duena.

e) Kotizazio-oinarria ziurtagiria sinatzen duen enpresan lan egindako azken hilabetekoa izango da, eguneratuta.

f) Hitzarmen horrengatik dagokion zenbatekoa Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak ordainduko dio zuzenean Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrari.

4. Artikulu honetan araututako neurria Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren aurrekontuaren kargura finantzatuko da, nahiz eta hori finantzatuko duen kreditua ez den hartuko Enpleguari buruzko abenduaren 16ko 56/2003 Legearen 14. artikuluan aipatutako Estatuko enplegu-fondo gisa, beraz, ez da aplikatu behar Aurrekontu Orokorrei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Legearen 86.2 artikuluan ezarritakoa.

5. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrak ekitaldi bakoitzeko lehen seihilekoan igorriko du, 2014. urtera arte, honako hauei buruzko informazioa: «E. coli» bakterioaren ondoriozko nekazaritzako elikagaien sektoreko krisiak eragin dien eta aurreko ekitaldian arau honetan ezarritakoaren araberrako hitzarmen berezia sinatu zuten langileak; krisia gertatu ez balitz langile horien zerbitzuak baliatu izango zituzketen enpresek 2011ko maiatzetik uztaile arteko aldiaren inguruan emandako ziurtagiriak, eta langileek sinatutako hitzarmen berezien zenbatekoak.

6. Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak, informazio hori jaso eta aztertu ondoren, ekitaldi bakoitzeko bigarren seihilekoan ordainduko du jasotako informazioaren araberrako zenbatekoa; 2014a izango da arrazoi horrengatik ordainketak egiteko azken urtea.

7. Gizarte Segurantzaren nekazaritzako erregimen bereziko besteren konturako langileek, artikulu honen 2. idatz-zatian ezarritako baldintzak betetzen badituzte, 2011ko maiatzetik uztaile arte jarduerarik izan ez duten aldiengatik ordaindutako kuotak itzultzeko eskatu ahal izango dute.

Eskaera Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrean egingo da; horrek kuotak itzuliko ditu eta egoki diren zenbatekoak Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoari erreklamatu dizkio.

Halaber, artikulu honen 2. idatz-zatian ezarritako baldintzak betetzen dituzten langileak nekazaritzako erroldan bajaran egon badira 2011ko maiatzetik uztaile, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrari eskatu ahal izango diote hilabete horietan jarduerarik gabe egon diren aldietan erroldan alta emateko. Kuotak Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak ordainduko dizkio Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrari.

8. Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak baimendu ahal izango du, artikulu honen 2. idatz-zatian ezarritako baldintzak betetzen dituzten eta Gizarte Segurantzaren lege orokorraren testu bateginean (ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuak onartua) araututako kontribuzio-mailako langabeziako prestazioa eskuratu duten langileei dagokienez, 2011ko maiatzetik uztaile jarduerarik gabe egon diren aldiengatik prestazio hori jaso duten aldia kontuan ez hartzeko, aitortutako prestazioaren iraupena agortzeko ondorioetarako.

9. Besteren konturako aldi baterako nekazaritza-langileek, artikulu honen 2. idatz-zatian ezarritako baldintzak betetzen badituzte eta ezin izan badute urtarrilaren 10eko 5/1997 Errege Dekretuan (Gizarte Segurantzaren Nekazaritza Erregimen bereziari atxikitako aldi baterako langileentzako langabezia-sorospena arautzen du) araututako langabeziako sorospenik edo apirilaren 11ko 426/2003 Errege Dekretuan (Gizarte Segurantzaren Nekazaritzako Erregimen Bereziari atxikita dauden eta Andaluzia eta Extremaduran bizi diren aldi baterako langileentzako nekazaritza-errenta arautzen du) araututako nekazaritza-errentarik jaso, gutxieneko lanegunak bete ez dituztelako, laguntza horiek jaso ahal izango dituzte langabezia-egoeraren aurreko hamabi hilabete naturaletan benetako 20 lanegun kotizatu badituzte erregimen berezi horretan, betiere aplikatu beharreko araudian ezarritako gainerako baldintzak bete badituzte eta jarduerarik gabeko egiaztatutako aldia langabezia-egoera hasi aurreko hamabi hilabete naturaletan gertatu bada.

Aurreko atalean aurreikusitakoa aplikatzen denean, kotizatutako 35 lanegun egiaztatutatzat joko dira urtarrilaren 10eko 5/1997 Errege Dekretuaren 5.1.a) artikuluan eta apirilaren 11ko 426/2003 Errege Dekretuaren 4.1 eta 5.1.a) artikuluetan ezarritakoaren ondorioetarako.

8 eta 9. paragrafoetan bildutako prestazio-eskaeran adierazi beharko da «E.coli» bakterioak nekazaritzako elikagaien sektorean eragindako krisiak kaltetutako pertsona dela, bai eta krisi hori gertatu ez bazen enpresa horretan zenbat egunetan zerbitzu emango zukeen adierazten duen enpresa-ziurtagiria aurkeztu ere.

Xedapen gehigarri bakarra. *Finantzaketa.*

1. Errege lege-dekretuan aurreikusitako hobariak Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren aurrekontuaren kargura finantzatzen dira (241.A programa, 487.03 aurrekontu-kontzeptua).

2. «E.coli» bakterioaren krisiak kaltetutako langileei aplikatu beharreko gizarte-segurantzako neurriak Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren aurrekontuen kargura finantzatuko dira. Horretarako, erakunde horren gastu-aurrekontuan kreditua kontsignatuko da 2012, 2013 eta 2014ko ekitaldietarako. Hala ere, neurri horren finantzazioak lehentasuna izango du erakunde horrek har ditzakeen gainerako neurri edo ekintzen gainean.

Azken xedapenetatik lehena. *Aurrekontu Orokorrei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Legearen aldaketa.*

Idazketa berria izango du aurrekontu orokorrei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Legearen hemezortzigarren xedapen gehigarriak. Aurrerantzean, honela geratuko da idatzita:

«ONCEk, kontuan hartzen den ekitaldiaren aurrekoan, baimendutako joko guztien artean, ez baditu Gobernuak onartutako salmenta-helburuak bete, Estatuko Loteria eta Apustuen Enpresa-Entitate Publikoak, 2005etik 2011rako ekitaldietan, finantza-esleipen bat egingo du; esleipen hori urtero Gobernuak finkatuko du, honako atal hauetan ezarritako arauen arabera:»

Azken xedapenetatik bigarrena. *Indarrean jartzea.*

Errege lege-dekretu hau Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denean jarriko da indarrean, nahiz eta 1. artikulua 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera izango dituen ondorio ekonomikoak.

Madriken emana, 2011ko azaroaren 18an.

JUAN CARLOS E.

Gobernuaren lehendakaria,
JOSÉ LUIS RODRÍGUEZ ZAPATERO